

noaua



Martxoak 8ko eguna
antolatzeko lehen bilera
larunbat honetan egingo
da Potxoenean

Igande honetan
haurrentzako zinea
Sutegin



Kadete mailako bolei taldea:
**“Partidak serio hartzen ditugu
baina umorerik ez zaigu falta”**

HHI-EPA USURBIL HELDUEN ESKOLA

Matrikula epea zabalik

(aldez aurretik telefonoz hitzordua eskatu 943 37 64 43- 943 36 66 08)

•HEZKUNTZA OROKORRA

(Oinarrizko kultur formakuntza: Euskara, Ingelera, Gaztelania, Irakurketa, Idazketa.

Kalkuloan hastapena eta hobekuntza. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionaturako mugimendu artistikoak...)

- **DBH-ko titulua** (4 hilabeteko ikastaroak)
 - **EUSKARA TAILERRA (MAILA 1 ETA 2)**
 - **GAZTELANIA ATZERRITARRENTZAT**
 - **IRTEERA DIDAKTIKOAK URTEAN ZEHAR**



ARGIBIDEAK: 943 36 66 08

noqua

jarraitu gure sare sozialak



www.noqua.eus

ORIANTE BHI

BI ERAIKIN, INSTITUTU BAT!

DBH-ko IKASLEEN ONARPENA 23-24

OTSAILAREN 13-tik 24-ra



Landaberri eraikina DBH 1-2
Pintore 2,
20160 Lasarte-Oria
943 89 94 94



Larrekoetxe eraikina DBH 3-4 eta Batxilergoa
Buenos Aires aldapa 1,
20160 Lasarte-Oria
943 89 94 92



www.oriarte.eus

ATE IREKIAK

otsailaren 8an (17:30-18:30)
Landaberri eraikinean

12-18 urte
DBH-Batzilergoa
Jangela zerbitzua
Euskal kultura eta
amiztasuna bultzatuz

Albisteak iruditan

Konponketa lanak Etzabal eta Iarbe arteko bidean



Ur hornidura sarea berritzen ari dira Aginagako lur hauetan eta lanak hainbat egunez luzatuko direla ohartarazi du Udalak.

Etzabal eta Iarbe arteko bidea partzialki itxita egongo da hainbat egunez, udala ur hornidura sarea berritzeko lanetan ari

delako. Udal-brigada ari da lanak egiten, "eta aurreikuspenen arabera, hamabost egun beharko dituzte bukatzeko. Ber-

tako bizilagunei ahalik eta kalterik gutxien sortzen ahaleginduko dira", ohartarazi dutenez.

Laburrean

Musukoaren beharrik ez garraio zerbitzuetan

Otsailaren 8an asteartea sartuko da neurria indarrean. Garraio zerbitzuetan musukoa ez da erabili beharrik izango.

Osasun zentroetan ordea, musukoaren erabilerak derrigorrezkoa izaten segiko du: anbulatorio, denetarikoa klinika eta ospitaleetan. Baita adinekoen egoitzetan ere.

Usurbilgo jaiak antolatzen hasteko garaia da

Santixabeletako Jai Batzordeak ostegun honetarako, otsailaren 2rako deitu du bilera. Arratsaldeko 18:30ean batuko dira, Potxoenean. "Jai Batzordeko kide izan nahi duten herritar guztientzako bilera irekia izango da". Bilgune honetan erabakitzen dira jaietako lotutako xehetasun guztiak.

Euskal Herriko XIV. Mus Txapelketa martxan da

Usurbilgo kanporaketa otsailaren 10ean Aitzagan. Izen-ematea, 21:30etik 22:00etara. Prezioa: 20 euro bikoteko. Laguntzaileak: Saizar eta Aginaga sagardotegiak, Bruño mariskoak. Garaileek Gipuzkoako finala jokatu dute martxoaren 11n. Final nagusia, Euskal Herriko, martxoaren 25ean jokatu da.

noaia

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noaia.eus /// www.noaia.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroit S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaia.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noaia.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak
Euskal Herrira!



Ugaitz Agirre

LAGUNAK ustez lurrazteko 24 ordu baino gutxiago, eta gogoia helbide batera joan zitzaidan: Carrer de la Diputació, 296, Bartzelona. Bigarren eskuko liburu denda bat. Zer egin ez dakidanean liburuetara joan ohi naiz, ez erantzun terapeutiko eta miragarririk topatuko dudalakoan, baizik eta bideari beste argi bat ematen diotelako. Liburua benetan ona, eta gainera bere orrialde artean harrapatu bazaitu, magikoa izango da. Pertsonaiak ulertuko dituzu, haien konplize bihurtuko onean eta txarrean, eta orduan, orduan bai, zuretan konplize izango dituzulakoan, aurre egingo diozu errealitateari fikzioaren olan forjatutako estrategiekin.

Apalategiak banan-banan begiratu nituen, liburu bakoitzaren bizkarrean agertzen zen titulua eta egilea identifikatzeko asmoz. Noizbehinka, bat hartu eta esku artean sakonagotik begiratzen nuen, ausazko esaldiak irakurri, sinopsiari begiratu bota, egilearen argazkiari, biografiari. Beti daude sorpresatxoak, ezustekoak bat-batean erakargarri bihurtzen dituztenak aitzitik aparte utziko zenituzkeen liburua. Bizitza ere hori izan ohi da askotan, ezusteko kate bat jarraitzea non amaituko

Biharrak inoiz ez daki (5)



"Begiak zabaldu zenituenean, Lleidarako hogeit bat kilometro falta ziren".

UGAITZ AGIRRE

"Zer egin ez dakidanean liburuetara joan ohi naiz, ez erantzun terapeutiko eta miragarririk topatuko dudalakoan, baizik eta bideari beste argi bat ematen diotelako"

duzun gutxi asko dakizuna, baina inola ere ez nola.

Ongi zaindutako lokala zen, berria zirudien bere zurratasunaren kariaz, eta bertan islatzen zen argiak ez zuen itzalik egoten uzten. Argi zitezela dendako liburu guztiak, erabiliaren erabiliaz urratuak, horituak, zarpailduak!

Zabaldutako batek oraindik bere aurreko jabearen notak zituen gordeta: zugan pentsatuta erosi dut. Imajinatu nituen esaldi bakan haiek ezkutatutako paisaiak, atmosferak, harremanak, leporatu zenidan

arte hiperbolazko bost ordu neramatzala han sartuta.

Baten bat gustatzen zaizu?, zirrarez galdegin nizun. Utzidazu liburu bat oparitzen!

Egia esan ez nekien zein ziren zure gustu literarioak. Pertsona bati buruzko informazio asko lor daiteke etxean dituen liburuetatik. Zure gelakoak gogoratu nituen, apalategian txukun jarrita zeuden. Tituluak ez nituen oroitzen, akaso Jules Vernearen bat zegoen?, baina bai amarenak zenituela. Liburuen aurrean bere argazki bat zegoen. Eskutan hartu zenuen. Buruz behera ipini zenuen eta ezpainak muxukatu zenizkidan segidan.

Bihozkada bat duzunean, segiozu.

Eta bihozkada hori literarioa bada, ez utzi joaten. Heldu gogor eta bota barruak nahasten dizkizun guzti-guztia. Eskergarria da pertsona horri eskainitako hitzak berari irakurtzeko ematea, eta benetan zintzoak badira, berak ere eskertuko

ditu.

Horregatik zara hitz hauexen protagonista.

Hori dena izan zen lanera lagundu nizun gauean argi eta garbi geratu zitzaidana. Gainerako guztia nahas-mahas nardagarria zen. Ez nion zure nagusiari deituko familia ezkontza faltsu bati buruz hitz egiteko: nor da hain inozoa horrelako zerbait denborarekin planifikatu behar dela ez pentsatu, eta baimena emateko?

Zure ate soinuak berriro ere sofán botata harrapatu ninduen.

Begira Ugaitz, begira ze topatu dudan hona bidean?

Perikito zauritua zeneraman besoan bilduta. Eta orduan bai, orduantxe ulertu nuen nire egitekoa: bahitu behar zintudan.

Lo pixka bat egin eta bazkalosteko kafearekin, lagunak atzeratzen ez ote ziren ari iradoki zenidan. Baiezkoarekin erantzun nizunean, Girollako plana mahai gainean jarri nuen berriz. Biok eguna elkarrekin egoteko genuen, merezi genuen. Idatzi ere egingo ez nuen mezua bidali niela esan nizun, gauean elkartuko ginela.

Begiak zabaldu zenituenean, Lleidarako hogeit bat kilometro falta ziren. Zuri ez zitzazizun harrigarria egin, eta paisaia idorra kontenplazten hasi zinen.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhua Azpirotz Eizmendi

Luis Aranalde

Ugaitz Agirre Zapirain

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Zuen publizitatea hemen
943 360 321
publizitatea@noaua.eus

Artzi
Parrilatexea
bazkariak EGUNERO
afariak: OSTIRAL/LARUNBATA
943 362725
688 690 361

Hiria Antolatzeko Plan Orokorra, beste hilabetez jendaurrean

Izatez hiru hilabetez, urtarrilaren 31ra arte jendaurrean jartzea onartua zuen Usurbilgo Udalak Hiria Antolatzeko Plan Orokorra (HAPO). Azkenean ordea beste hilabete batez, otsailaren 28ra arte zabalik segiko du alegazioak aurkezteko epeak. Hala onartu zuen udalbatzak aho batez urtarrilaren 26an egin zuten osoko bilkuran.

Udal gobernu taldearen esanetan, luzapen honek ez du HAPOren tramitazioan atzerapenik eragingo, oraindik beste administrazioen hainbat txosten jasotzeko dituzte eta. Hala, alegazioak aurkezteko aukera gehiago eskaini nahi dizkiote jendarteari, eta hartara, planeamenduaren irizpideetako bat sustatuko dute, herritarren parte hartzearena.

Hitzordua udal arkitektuarekin
Ekarpenak biltzeko hain zuzen, 2014az geroztik parte hartze prozesu ezberdinen bidez, herritar eta eragileekin marrazturiko Usurbilgo etorki-



Udal gobernu taldearen esanetan, luzapen honek ez du HAPOren tramitazioan atzerapenik eragingo.

LUZAPENAREN ARRAZOA

“Alegazioak aurkezteko aukera gehiago eskaini nahi dizkiote jendarteari, eta hartara, planeamenduaren irizpideetako bat sustatuko dute, herritarren parte hartzearena”

zuna definitzen duen HAPOa urriko udalbatzarrean hasieraz

onartu ostean, gizarteratzen aritu da Udala hilabeteotan Aginagan, Kaxkoan eta Zubietan antolatu dituen hitzaldi ziklo eta erakusketa ibiltariaren bidez. Gogoan izan bestalde, planeamenduaren baitan aurreikusten diren ekintzen berri ematen duen aldizkaria banatu zutela etxez etxe. Udal arkitektuarekin egoteko aurrez hitzordua eskatzeko (943 371 951) aukera ere eskaintzen ari da Udala.

Ur-hornidura eta saneamenduaren digitalizazioa

“Uraren hiri-zikloaren efizientzia hobetzeko proiektuak egiteko” Espainiako Gobernuaren dirulaguntza deialdira aurkeztu da Usurbilgo Udala, Errenteria, Hernani, Lasarte-Oria, Pasaia, Oiartzun, Astigarraga, Urnieta eta Lezokoarekin ba-

tera, Añarbeko Urak-en aterkipean. Deialdi honi begirako bi erabaki hartu zituen udalbatzak aho batez, iragan asteko osoko bilkuran.

Batetik, deialdi honetarako eskabidea aipaturiko gainerako erakundeekin modu bateratuan

bideratzeko taldea osatzea eta eskaria egitea onartzea. Tokiko erakunde bakoitzak proiektu ezberdinak garatu nahi ditu dirulaguntza deialdi honen bidez; Usurbilgoak, bertako “ur hornidura eta saneamendua” digitalizatzea. Guztira,

269.910,63 euroko aurrekontua duen egitasmoa da. Kopuru horri aurre egiteko eskatutako dirulaguntza 195.837,63 eurokoa da.

2025a amaitu baino lehen gauzatu beharko dute proiektu hau.

Hamaikagarren kreditu aldaketa

2022ko udal aurrekontuen baitan eginiko hamaikagarren kreditu aldaketa onartu zuen udalbatzak aho batez, urtarrilaren 26ko osoko bilkuran. Guztira, 19.000 euroko hiru partidetako gastu arruntei aurre egitera bideratzea erabaki dute: jaien hornikuntza gastuetara, Haranerren mantentze lanetara eta euskararen erabilera sustatzera.

%10,5eko igoera Buruntzaldeko taxi tarifetan

Estreinu berri dugun urtean, %10,5 igoko dira taxi tarifak Buruntzaldea osoan. Iragan urrian bildu zen urtero moduan Buruntzaldeko Taxiaren Eskualdeko Batzordeak gai honi buruzko erabakia hartzeko. Bertan bi taxi elkarteek tarifak %10,5 igotzea onartu zuten. Proposamenok Buruntzaldeako udaletara heldu dira orain. Usurbilgoak aho batez onartu zuen igoera urtarrilaren 26ko osoko bilkuran.

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontzeju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Antxeta
TABERNA

egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
oilasko enreak, ogitartekoak, razioak...
paellak enkarguz!

943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

Kafe Tertuliak martxoaren 8a antolatzen hasteko deia luzatu du

Martxoaren 8ko ekimenak antolatzen hasiera doa Kafe Tertulia, Usurbilgo neska* gazteen talde feminista. Lehen bilera otsailaren 4rako finkatu duela berri eman dio NOAUA!ri; 11:30ean Potxoenean.

Oraingoan, berriz ere 2019. urtean bideratu zuten belau-naldiarteko antolaketa eredu berreskuratu nahi dutela nabarmendu dute Kafe Tertuliako kideek. Urte hartan “herriak emandako erantzuna eta parte hartzea goraipatu nahiko genituzke, aurtengo helburu gisa oihartzun bera lortzea jarritz”. Horregatik, “honen harira, otsailaren 4an 11:30ean Potxoenean biltzeko deia egiten dugu. Guztion artean lortuko dugu! Gora borroka feminista!”.

Emakumeen Etxearen irekierara begira

Kalezarko Pelaoienean kokatuko den etxe honen egitasmoa sustatzen ari den taldetik ekimenok iragarri dituzte Mar-



2019. urtean bideratu zuten belau-naldiarteko antolaketa eredu berreskuratu nahi dute.

KAFE TERTULIA

“Otsailaren 4an 11:30ean Potxoenean biltzeko deia egiten dugu. Guztion artean lortuko dugu!”

txoaren 8an bezperatan.

Martxoak 4, larunbata

■ 12:00 Emakumeen Etxeari lotutako asanblada irekia Potxoenean.

■ Izen-ematea aurrez egin behar da bide hauetatik:

943 377 110

parekidetasuna1@usurbil.eus

■ Segidan, bertso-bazkaria Artzabalen.

Parte hartzaileak: Maialen Lujanbio, Jone Uria eta Saioa Alkaiza.

Gai-jartzailea: Amaia Agirre.

■ Sarrera: aurrerago jarriko dira eskuratzeko moduan.

■ Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Zahartzarora eta genero rolak auzitan

Zaintzari buruzko hitzaldi zikloari beste solasaldi bat gehitu zioten aurreko asteko ostegunean: “Zaharrak gara eta libre”. Miren Aranguren Emagin elkarteak, Mari Luz Esteban EHUKo irakasleak eta Ruth Iturbide NUPeko irakasleak zahartzarora feminismoaren ikuspuntutik aztertu zuten Potxoenean, hainbat eta hainbat adinekoekin batera.

Adinkeriaren gaia pil-pilean dago gure gizartean eta hori genero rola nola uztartzen den aztertu zuten hizlariak. Mari Luz Estebanek gaiari buruz idatzitako “Andreza-



Adinkeriaren gaia pil-pilean dago gure gizartean eta hori genero rola nola uztartzen den aztertu zuten aurreko astean Potxoenean.

ren Manifestua” ere hizpide izan zuten, gai hori jorratzen duelako erabat. Adinkeria eta genero rolak nola gurutzat-

tzen diren eta horrek zer ondorio dituen, zer zapalkuntza dakarren eta indarkeria nola adierazten den aztertu zuten.

Inauteri Festarako egitaraua, prest

‘Filmak’ izango ditugu datorren Inauteri Festarako mozorrotzeko aitzakia. Otsailaren 17ko asteburuan dantza eta parranda giro betean murgiltzeko aukera izango da Usurbilen. Adi NOAUA! Kultur Elkartetik iragarritako ekimen hauei:

Otsailak 17, ostirala

Orbeldirekin, Uztaritzeko Inauteriak

■ 19:00 Orbeldi eta Zumarterekin, Adunako Axeri dantza kiroldegitik abiatuta.

■ 20:00 Emanaldia frontoian.

■ Antolatzailea: Orbeldi dantza taldea.

Otsailak 18, larunbata

Inauteri festa

■ 12:30 Orbeldirekin dantza frontoian! Mozorrotu eta etorri dantzara!

■ 12:30-14:00 Joaldunak kalean zehar.

■ 18:00 Burrunbazale txarangarekin kalejira.

■ 23:00 Fun & Go frontoian.

■ Antolatzailea: NOAUA! K.E.

Otsaileko eskaintza KzGunean

Otsailean zehar arratsalde zabalduko dute KzGunea, 16:00-20:00 artean. Ikastaro hauek eskainiko dituzte:

■ Otsailak 1, “Egon zaitez aktibo Google Fit eta Wikilokekin”. Orduetgia: 16:00-18:00

■ Otsailak 9-14 “LibreOffice Writer. Zure testu dokumentuak sortu”. Orduetgia: 16:00-18:00.

■ Otsailak 17-28. “Kudeatu zaitez Google aplikazioekin”. Orduetgia: 18:00-20:00.

Informazio gehiagorako:

943 023 684

tutor.usurbil@kzgunea.net

Etumeta AEK euskaltegiak lehen literatura lehiaketa antolatu du

Etumeta AEK euskaltegiak jarri du ekimena martxan eta "herritar guztiok eta euskaltegiko ikasleok zaudete gonbidatuta bertan parte hartzera. Beraz, animatu, eta bidali zuen ipuinak oinarrietan zehaztutako helbidera. Zuen lanen zain egongo gara!".

- Ipuin laburrak izango dira, 650 hitz, gehienez.
- Times New Roman letran idatziak, 12 neurrian, espazio bikoitzarekin.
- Gai librean idatziko dira.
- Lanak aurrez argitaratu gabeak izango dira, baita lehiaketaren batera bidali gabeak ere.
- Euskaraz idatziak behar



Beharrezkoa da 18 urte beteak izatea lana bidaltzeko unean, eta Usurbilen erroldatua egotea edota Etumeta AEK euskaltegian matrikulatua.

dute.


- Lanak bidaltzeko epea: apirilak 17 (egun hau barne).

- Oinarri guztiak esteka honetan topatuko dituzue: <https://labur.eus/etumeta>

Zumetaren muralak 50 urte beteko ditu aurten

2023an 50 urte beteko ditu Jose Luis Zumetak frontoi atzealdean eraiki zuen horma-irudiak. Urteurrenarekin bat eginez, Udalak eta Aldundiak eraberritu egingo dute murala. Bide batez, Zumetaren artelana azpimarratzeko hainbat ekitaldi antolatuko dira urtean zehar.

"Horma irudi hau ikonikoa da hainbat arrazoiengatik eta garrantzia handiko artelana da, Usurbilgo mugetatik kanpo ere Euskal Herriko artearen historian berebiziko lekua duelarik". Urtemuga honi begira bi erakusketa berezi, kontserbaziorako lanak eta



Otsailaren 12an eraberritze-lanei buruzko xehetasunak eskainiko dituzte.

ekimen gehiago iragarri ditu Usurbilgo Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Egitasmo honi buruzko

xehetasunak otsailaren 12an aurkeztuko dituzte eguerdiko 12:00etan, horma-irudiaren parean, Mikel Laboa plazan.

Peru Galbete, 'Punto de Vista' jaialdian

Zinegile eta musikari usurbildarrak 'Bide bazterrean hi eta ni kantari' Joxan Artzeri buruzko ikusentzunezkoa aurkeztuko du Nafarroako Punto de Vista jaialdian.

Santa Ageda bezpera, kantuan

Bira berezi bat berreskuratuko du Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak larunbat honetan, otsailaren 4an; Santa Ageda bezperako eskea, "egunak eskatzen dituen jantzi, makila eta farolarekin". 18:00etan abiatuko dira Mikel Laboa plazatik.

Kantuzale denoi irekia

Ekitaldia herritar ororentzat irekia egongo da. "Ongietorriak izango dira bertso berriak, egun honetarako jarriak", iragarri dute Usurbilgo Euskal Kantu Taldetik. Ohitura zaharrak eta herri honen historian dauden abestiak ere berreskuratzen hasiak dira. Iragan larunbateko kantu jiran esaterako, "Sagardoa" kanta abestu zuten biraren hasieran. Abestiaren hitzak Andoni Arzallus Aristirenak dira. "Hau abestu zuenean, Usurbilen, ondoan zituen Anttonio Pello, Mateo, Mikel Ezkerra, Joxe...", azaldu dute Kantu Taldetik. Haiek guztiak, "gure aurreko kantu-koadri-la" hartako kideak zirela oroitarazi digute.

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com
600 024 825

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax: 943300045

GAR
GRUPO MONROY
BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK
943 53 72 38
628 45 78 39 628 91 72 15
reformas@reformasmonroy.com
KALE NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL

Usurbil Döner Kebab
USURBIL
843 675 265
603 609 183
USURBIL DÖNER KEBAB USURBIL_DK

Kiroldegirako materialaren erosketan hitza hartzeko aukera

Oiaro Kiroldegiko giharketa gelarako makina berriak erostera doa Usurbilgo Udala. Horretara bideratuko duen 8.000 euroko partida nola xahutu erabakitzeko aukera izango dute egunotan herritarrek.

Otsailaren 3ra arte, Kiroldegian nahiz erabiltzaileei online bidalitako formularioa osatuta parte hartu ahal da. “2023ko aurrekontuetan 8.000 euro bideratuko ditugu gimnasioiko makina berriak erostera. Hori dela eta, zure iritzia jaso



“8.000 euroekin zer erosiko zenuke giharketa gelarako?”. Herrikideek izango dute azken hitza. Argazkia: kirolak.buruntzaldea.eus

nahi dugu. 8.000 euroekin zer erosiko zenuke giharketa gelarako?”. Herrikideek izango dute azken hitza.

Zibersegurtasuna ezbaian

Zibersegurtasuna izan zuten hizpide Potxoenean ostegun arratsaldean. Hitz Aho guraso elkarteak antolatuta, Urko Zurutuza herritarra gonbidatu zuten solasaldia gidatzeko, gaian aditua baita. Datuak aztertu eta ziberdelituak ahalik eta egokien ekiditeko aholkuak proposatu zituen hark.

Ertzaintzak 2021-2022 urteetan bildutako ziberdelitu salaketak aztertu zituzten lehenengo: iruzurrak, manipulazioa, adin txikikoen aurka egindako zibererasoak... Egungo egoera ezagututa, ziberdelituen jatorriak aztertu eta horiek ahalik eta mo-



Urko Zurutuza gidatu zuen zibersegurtasunari buruzko solasaldia.

durik egokienean ekiditeko aholkuak eskaini zituen hizlariak, bai eta entzuleek egun erabiltzen dituzten metodoak entzun ere. Adin txikikoen gaian ere sakondu zuten gura-

soek euren seme-alabak ziber-espazioan nola babes ditzaten azaltzeko eta seme-alabak nola hezi behar diren ikasteko Interneten seguruago ibil daitezten.

Bihurri ludotekako kuota pagatzeko garaia da

Bihurri Ludotekako erabiltzaileek urte hasieran ordaintzen dute kuota. NOAUA!ra igorritako ohar baten bidez ohartarazi dutenez, “10 euro pagatu behar dira eta epea otsailaren 13an amaituko da”.

Bihurri ludotekatik iritsi zaigu oharra: jada bazkide direnek 10 euroko kuota ordaindu behar dute. Rural Kutxako kontu zenbaki honetan egin beharko da ordainketa: ES3230080259103545905527.

Kuota pagatzeko garaian, haurraren izen-abizenak ipini behar dira. Bazkideek otsailaren 13ra arteko epea dute, egun hori barne.

Bazkide ez direnek orain dute aukera

Bihurri ludotekako bazkide egiteko interesa duenik balez, “jarri gurekin harremanetan ondorengo helbide elektronikora idatziz: bihuririludoteka@gmail.com”. Gaur egungo kudeatzaileek aditza eman dutenez, “urteko edozein momentutan egin daiteke bazkide, eta sarreara kuota 30 eurokoa da”.



Kuota pagatzeko garaian, haurraren izen-abizenak ipini behar dira.

ARANKA BERRIKUNTZAK
 · Fatxaden estaldurak · Estalkien berriztatzeak
 · Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa
 · Igeltseritza orokorra
722 297 867 USURBIL

BORDATXO
 taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
 Zubiaurrenea 5

URDAINTZI S.L.
 Eraikuntzak
 urdaintzi@euskalnet.net
 IT-ak egiten dira
649 43 54 75
943 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

ZENDOIA ENEA taberna
 Kale Nagusia 35, Usurbil

Besteei bizitza emateagatik eskertu eta omenduak

Pozarren eta merezimen-
du osoz jaso zituzten
oroigarriak berriki Patri
jatetxean egindako Usurbilgo
Odol Emaileen Egunean omen-
du zituzten herrikideek.

Gutxienez, 25, 50 eta 75 al-
diz guztiok bizitzeko nahiz bi-
zitzan zehar, ebakuntzaren edo
larrialdi egoeraren batean dau-
denentzat odola eman dutenak
goraipatu eta eskertu zituzten.
Ondoko irudian duzue aipa-
tu Usurbilgo Odol Emaileen
Elkarteko ordezkariekin batera,
hitzordu honetara joandako
zenbait omendu: Joxe Leon
Arriaga Intxausti, Jose Luis
Artola Zuloaga, Jose Maria Ri-
vadeneyra Sicilia, Gabriel Sara-
sola Ibarгойen, Roman Agirre
Arruti eta Jose Luis Bengoetxea
Ugarte. Zorionak! Gehiago dira
ordea, omenduak. Segidan di-
tuzue zerrendatuak.



Gutxienez 25, 50 eta 75 aldiz odola eman dutenak goraipatu eta eskertu zituzten Usurbilgo Odol Emaileen Egunean.

Omendutako odol-emaileak:

■ Odola 25 aldiz edo gehi-
gotan emateagatik: Joxe Leon
Arriaga Intxausti, Jose Luis
Artola Zuloaga, Larraitx Barre-
netxea Arando Martinez, Urko

Manterola Matxain, Jose Maria
Puldain Tolosa, Jose Maria Ri-
vadeneyra Sicilia, Gabriel Sara-
sola Ibarгойen.

■ Odola 50 aldiz edo gehi-
gotan emateagatik: Josu Mirena

Arruti Huegun.

■ Odola 75 aldiz edo gehi-
gotan emateagatik: Roman
Agirre Arruti, Moises Andres
Zubiria, Jose Luis Bengoetxea
Ugarte.

“Odol hori ez da lantegi batean ekoizten”

Omenduetako bi herriki-
de elkarrizketatu ditugu
NOAUA!n.

Noiz hasi zineten odola ematen?

Joxe Leon Arriaga: 56 urterekin eta alabak konbentzitu. Orratzei beldur handia nien baina mentalizatu, lehenbiziko aldiz probatu eta segi eta segi, ordutik ez diot odola emateari utzi. 33-34 aldiz eman dut.

Roman Agirre: 38 urterekin hasi nintzen, semeak jaio berri. Beti ongi, animatuta. Odola 90 aldiz edo eman dut.

Urtean gutxi gorabehera zenbat aldiz?

J.L.A.: Hirutan.

R.A.: Hirutan eta noizbait lautan ere bai, baina gutxitan.

Zuentzat zer da odola emate- tea?

J.L.A.: Niretzat behintzat lasaitasuna eta laguntza bat, odola hartzen duenarentzat. Odol hori ez da lantegi batean ekoizten. Hartzen duenak pixka bat pentsatuko balu nondik datorren, bera ere odol-emailea izateko enkargu ona litzateke.

R.A.: Iritzi berekoa naiz. Ez da ekintza zaila eta osasungarria da gainera niretzat. Odola ematean lasaitasuna hartzen dut.

Aldartearen aldaketa nabari duzue, beraz?

R.A.: Bi egun pasa eta nabaritzen du nire gorputzak.

J.L.A.: Odola ematea gorputzarentzako ere ona da. Mendian asko ibiltzen naiz eta asko nabaritu dut.

Gainera, ezin jakin bihar besteen odola beharko ote dugun.

J.L.A.: Ez da lantegian ekoiz-

ten. Hartzen duenak pixka bat pentsatuko balu, odol-emailea izatea ez da zaila, erraza da. Beldurrik ez izan.

Osasun langileen kontrolpean eman daiteke odola. Nola kudeatzen dute?

J.L.A.: Galdera batzuk egiten dituzte tratamendurik ba ote duzun, atzerrian egon ote zaren, zure bizimodua nolakoa den... Gero, zuk emandako odola hartzen duenak jaso baino lehenago zuri galdetzen dizute odola ondo dagoen edo ez. Kontrola erabatekoa da. Guretzako lasaigarria da.

Norbera nola dagoen jakiteko ere baliagarria beraz.

J.L.A.: Laguntza handia da bai.

R.A.: Ongi nagoen artean odola ematen segiko dut.

J.L.A.: Niri beste emanaldi bat edo bi geratzen zaizkit. 69 urte

betetzera noala, 69-70 tar-
te horretan eteten da odola
emateko aukera. Pena dut
odola lehenago ematen hasi
ez izanagatik.

Erreleborik ikusten duzue odol-emaileen artean? Zer esan balizko emaile berriei?

J.L.A.: Etxekoan artean bai joaten dira. Emaile berriei zer esan? Behin odola ematen hasiz gero, ez duzue utziko.

R.A.: Geure semeak joaten dira eta jarraitzen dute. Odola ematen hasten denak segiko du.

Aitortza pozgarria ezta elkartetik egin zaizuena?

R.A.: Odol Emaileen Elkarte-
koek lan handia egiten dute.

J.L.A.: Oroigarri hau biloben-
tzat izango da. Jendea anima-
tu odola ematera, ez baita ezer
eta laguntza handia eman de-
zakezu.

Punta-puntako bolei taldea du Usurbilek, kadete nesketan

Kirok jarduera berri bat gorpuzten ari da herriari; bolei. Eta nola gainera. Iaz entrenamenduekin hasi, aurten neurketak jokatzeari ekin eta punta-puntako taldean bilakatu da kadete nesken Udarregi taldea.

NOAUA! Nolatan heldu zarete bolei bolean jokatzerara, aurretik ez baita egon halako talderik?

Garazi Tapia: Hasieran batez ere, gu baino gazteagoek jokatzen nahi zuten. Entrenatzen hasi ziren, kluba sortu gabe. Entrenatu bai baina ezin zuten partidarik jokatu. Aurten kluba sortu dute amek.

Naia Rodriguez: Beste kirol jarduera bat bilatu nahi genuen baina ez genuen aurkitzen. Orduan, gure amak elkartu ziren, bolei bolean entrenatzaile batekin hitz egin eta ikastolako frontoian entrenatzen hasi ginen.

Aukeraketarekin asmatu duzue?

G.T.: Gustura gaude bai.

Unai Sarasua: Nahikoa borrokatu dugu kiroldegian entrena-



“Nahikoa borrokatu dugu Oiarde kiroldegian entrenatu ahal izateko”.

NAIA RODRIGUEZ

“Giro oso ona dugu.

Elkar asko laguntzen gara eta umore handia dago. Jarduera honetan denok lan egin behar dugu puntuak eskuratzeko”

tzeko.

Sortu berria izan arren, abiada bizian doan taldea da.

N.R.: Azkar baina ondo doa, gogotsu ari gara. Entrenamenduekin iaz hasi ginen, partidekin aurten, Kiroldegian entrenatzen hasi berritan. Baina irabazi egin genuen eta animatuta ginen.

Zerk ezaugarritzen du taldea?

N.R.: Talde giro oso ona dugu. Elkar asko laguntzen gara eta umore handia dago. Jarduera honetan denok lan egin behar dugu puntuak eskuratzeko.

G.T.: Animatuta entrenatzen

dugu eta horregatik hobetu dugu hainbeste. Presio handirik ez dugu, lasai baina ondo gabiltza.

U.S.: Partidak serio hartzen ditugu baina umorerik ez zaigu falta, gehienak lagun koadrila berean egoten gara, konfiantza handia dugu.

Zaletu faltarik ez duzue ezta?

G.T.: Gurasoak, lagunak, senideak... Animatzaile faltarik ez dugu.

N.R.: Lehen partidaren gogoan dut, jende asko etorri zen. Eskerrik asko lagundu diguten guztiei; gurasoei, Ibani baita, antolatzaileei, entrenatzaileei. Lan handia egon da atzetik.

G.T.: Haiek gabe noski ezingo zen ezer egin.

Taldea lehendik sortu ez izanaren pena baduzue?

G.T.: Bere emozioa izan du guk sortu izanak baina taldea lehendik sortua izan balitz bolean jokatzeak ohitura handiagoa egongo zen Usurbilen, eta izan ditugun zenbait zailtasun agian ez genituen izango.

“Jokalari gehiago etortzea ere ondo legoke”

Nolatan animatu zinen Unai nesken taldean jokatzerara?

Unai Sarasua: Normalean ez da mutil bat ikusten bolei bolean jokatzen nesken talde batean. Hernaniko kadeteen taldera jokatzerara joan nintekeen, baina ez nintzen hasieran hain seguru ikusten. Nire lagunekin nengoen hemen jokatzen. Azkenean, hemen jokatzea baimentzen zidan agiri ofizial bat eskuratu genuen.

Agiri hori gabe ezingo zenuen taldean parte hartu?

U.S.: Agiri hori gabe talde mistoa izango ginen, eta ezingo genuen jokatu orain gauden ligan.

Zailtasunik izan al duzue?

U.S.: Behin nire agiria hartu eta kexatzen hasi ziren herritik kanpoko partida batean. Publikoan ere oso arraroa zela kontua eta mutilen talde batera joateaz aritu ziren hitz egiten. Baina egia esan, berdin zait. Taldeki-deen laguntasuna dut eta oso gustura nabil hemen jokatzen.

N.R.: Zenbait guraso kexatzen

ziren mutila izanda indar gehiago izan zezakeela, baina horrek ez du esan nahi mutil batengatik irabazi edo galdu dezakegunik. Gai honek haserretzen nau, ez baitzait justua iruditzen.

U.S.: Orduan eta gehiago haserretu, orduan eta irabazteko gogo gehiago sentitzen dugu.

Kirol munduko bereizketa hauei buruz zer iritzi duzue?

G.T.: Ez du zentzu askorik. Helburua ondo pasatzea bada, jokatu gustura sentitzen dena-

rekin eta ez du konplikazio gehiagorik.

Herri mailan, atzetik datozeinei begira erreferenteak izan zaitezketela jabetu zarete?

G.T.: Ez naiz oso kontziente herri mailan zer garrantzia duen honek. Baina gutxi samar gara, eta hurrengo urtean, nire adineko bi hemen gaudenak joan egin behar dugu eta ezin dugu hemen jolastu. Orduan jokalaria gehiago etortzea ere ondo legoke, taldea desegin ez dadin.

Lander Velez Osa, entrenatzailea: “Ligan mantentzeko urtea da”

NOAUA! Talde baten jaiotza bititzen ari zara. Zer moduzko esperientzia izaten ari da?

Lander Velez Osa: Oso ona, hurrengo denboraldian hemen segitzeko irrikitan. Talde sortu berria izan arren, pentsa, beraien ligako laugarren postuan sailkatu dira. Asko ahalegintzen dira eta nabarmen hobetzen doazela ikusten da.

Ligan ibilbide oparoa jorratzen ari da taldea.

Kadete mailan 24 talde daude nesketan. Urtarrilera arte promozio liga jokatzeko da. Gero, sailkapenaren arabera, urtariletik maiatzera jokatzeko da benetako liga. Taldea laugarren



“13-15 urte arteko neskek probatzera etortzeko animatu nahi genituzke, boleibolaz goatzera”.

geratu zenez, aurkari hobere-
nak tokatuko zaizkie.

Zein da aurtengo erronka?

Gure erronka, jokalariek bolei-

bolaz goatzera da, eta horrez
gain, talde bezala gure izena
sortzea.

Oiardo Kiroldagian gaude. He-

men entrenatu duzue hasieratik?

Asteartetan hemen entrena-
tzen dugu eta ostegunetan
ikastolako frontoian.

Taldeari zer esango zenioke?

Hasteko, Usurbilgo Udalari es-
kerrak eman kirol berri hau he-
rrian txertatzeko jarri dizkigu-
ten baliabideengatik. Eskerrak
eman ere herritarrei harrera
oso ona izan duela jardura
honek. Partidak hemen jokatu
izan ditugunean jende dezente
etorri izan da ikustera. Kade-
teak, 13-15 urte arteko neskek
probatzera etortzeko animatu
nahi genituzke, boleibolaz go-
tatzera.

Miriam Arrillaga, Binakako Master Laboral Kutxan

Binakako VII. Master La-
boral Kutxa pilota txapel-
keta aurkeztu berri dute
eta bertan lehiatuko diren pilo-
tarien artean izango da Miriam
Arrillaga. Elite mailan arituko
da, pilota mistoarekin, eta Mi-
ren Larrarterekin osatuko du
bikotea.

Aurtengo Master Laboral
Kutxaren VII. edizioan 65 pi-
lotarik hartuko dute parte,
tartean Miriam Arrillaga agina-
garrak. Pilota Goxuan 25 pilo-
tari arituko dira, pilota mistoan
gazteen kategorian 24, pilota
mistoko 1.mailan 8, eta Arrilla-
gak parte hartuko duen pilota
mistoko elite mailan, beste 8.

Iaz, pilota mistoko elite
mailan Olatz Arrizabalagak eta
Enara Gamindek jantzi zuten
txapela, baina aurten ez dute
bikotea osatuko. Larrarte-Arri-
llaga, Arrizabalaga-Capellan,
Aldai-Mendizabal eta Ga-
rai-Gaminde bikoteak arituko
dira, nor baino nor aurtengo



Txapelketa Donostiako Aquariumen aurkeztu zuten. Miriam Arrillaga eskuinaldean da.

BINAKAKO MASTERRA

**“Miriam Arrillaga
Miren Larrarterekin batera
arituko da aurtengo
txapelketan”**

txapela eskuratzeko.

Denak denek aurka arituko
dira eta ligaxkako sailkapena-

ren arabera jokatu dituzte
Laudioko finalerdiak, lehen-
engoak laugarrenen aurka
eta bigarrenak hirugarrenen
aurka.

Finalerdiak eta finala ETB1en

Txapelketa asteburu honetan
hasiko da Mungian. Arrilla-
ga-Larrarte bikoteak ordea,

otsailaren 19an egingo du de-
buta Garai-Gaminderen aurka,
Galdakaon jokatu duen nor-
gehiagokan.

Master Laboral Kutxa le-
hiaketa martxoaren 26an ama-
tuko da Zarauzko Aritzbat-
alden. Finalerdiak (martxoaren
12an) eta finalak ETB1en bidez
jarraitzeko aukera izango da.

Aginaga Winter Series pala txapelketa mistoa iragarri dute

Aginagako Hariztitxo frontoian pala txapelketa antolatu dute martxorako. Aldez aurretik, otsailaren 17a baino lehen eman beharko da izena Arrate tabernan eta bikote bakoitzak 10 euro ordaindu beharko du.

Baldintza batzuk bete beharko dira jokatu ahal izateko. Txapelketa mistoa izango da eta gutxienez 16 urte beharko dira parte hartu ahal izateko. Antolatzaileen esanetan, “edozein modutara izan daiteke bikote: bi gizonetzko, bi emakumezko, gizon-emakume...”.

Jatorriari dagokionez, aginagarra edo usurbildarra izan behar da eta bikote bakoitzeko



Martxoan jokatu da baina izen-ematea otsailaren 17an amaituko da.

federatu bakarra onartuko da. Kontuan hartu teniseko pilotarekin jokatu direla partida guztiak.

Martxoaren 25ean izango da finala Hariztitxo frontoian,

18:00etan hasita. Ondoren, Eliza Zaharrean sari banaketa egingo dute, parte hartzaileen artean zozketak egingo dituzte. Jaialdi bat egitea ere aurreikusiko dute.

“Ez da posible izan, baina asteburu ederra pasa dugu”

Usurbil KE-ko jubencil nesken taldeak Euskal Ligarako promozio fasea jokatu zuen asteburuan Oiardon. Mecalbe Eibarrek lortu du iguera txartela.



Urbil Usurbil KE nesken taldeak Euskal Ligarako promozio fasea jokatu zuen.

Urtarrilak 27:

Mecalbe Eibar 24
Urbil Usurbil Kirol Elkarte 24

CD Urdaneta 27

Saieko Mon paperdenda 33

Urtarrilak 28:

Mecalbe Eibar 28
Saieko Mon paperdenda 25

Urbil Usurbil Kirol Elkarte 30

CD Urdaneta 30

Urtarrilak 29:

CD Urdaneta 23
Mecalbe Eibar 25

Saieko Mon paperdenda 18

Urbil Usurbil Kirol Elkarte 31

Gipuzkoako bolo eta toka txapelketak

Hiru kirol ekimen ezberdinen plaza izan zen Usurbil urtarrilaren 29an: Jubencil nesken Euskal Ligarako eskubaloiko promozio fasea Oiardon, Iri-sasi BTT Hotzak Akabatzen proba Andatza aldean eta Gipuzkoako bolo eta toka txapelketa Askatasuna plazan.



Igandean jokatu ziren bolo eta toka txapelketak Askatasuna plazan.

Aldaketak sexu aholkularitza zerbitzuan

Aurrerantzean, Xelebreak Aniztasuna taldeak kudeatuko du zerbitzua. Bi aste behin, astelehenetan, 17:00-19:00 artean Kale Nagusia 43an, Parekidetasun Saileko bulegoan (Zumarte ondoan).

Zerbitzuok eskainiko ditu: herritarrei zuzendutako arreta zerbitzu sexologiko pertsonalizatua, arreta zerbitzua hainbat bideren bidez: presentzialki, telefonoz, posta elektronikoz edo sare sozialen bidez; sentsibilizazio jarduerak antolatu eta garatzea herrian; formazio jarduerak burutzeko.

Harremanetarako:

■ sexuaholku@usurbil.eus
■ 650 232 714.

Miren Cuerdo eta Asier Iturralde, Argiaren sarituen artean

Bi urteko etenaldiaren ostean, urtarrilaren 27an Atxega jauregian banatu zituzten Argia Sariak. Sarituen artean bi herrikide; Entzunezko Argia Saria Iñurri elkartearen (Min)bizi podcast-ak jaso du. Egitasmo honen sustatzaileen artean da Miren Cuerdo herrikidea. “Feminismotik eta elkartasunetik, deserosoak diren tabuei naturaltasunez heltzen dietelako eman diegu saria, besteak beste”, adierazi du Argiak.

Interneteko Argia Saria euskal Mastodon komunitateari eman diote; publizitate-rik gabeko eta software libreko deszentralizatutako sare sozial honi emandako saria sustatzaileek jaso zuten, besteren artean, Asier Iturralde herrikideak.

Probaren izenari gorazarre egin zioten

Negu giro beteko igande goiza izan genuen urtarrilaren 29an, ezin aproposagoa Irisasi BTT Hotzak Akabatzen probarako. Ekimenaren izenari gorazarre eginez abiatu zuten hamaikagarren edizioan izena emanda zeuden parte hartzaileak. Gogoan izan, 500 lagunentzako lekua zegoen txirrinda gaineko mendi bueltarako eta plaza guztiak beteak zeuden, itxarotze-zerrenda zabaldu behar izan zuten antolakuntzak.

Bide lokaztu, zenbait tokitan elurtu eta bustian gozatu ederra hartu zuten. Bidean aurkitu zutenaren isla argia izan zen parte hartzaileak nola iritsi diren Dema plazako helmugara, tartean hainbat usurbildar. Ohi bezala, Euskal Herriko txoko ezberdinetatik etorritako txirrindularien artean ziren hainbat herrikide; irudiotako hauek, besteak beste.



Irisasi BTT Hotzak Akabatzen probako partehartzaileek bide lokaztuan –eta tarteka elurtuan– aritu behar izan zuten.



Ohi bezala, Euskal Herriko txoko ezberdinetatik etorritako txirrindularien artean ziren hainbat herrikide; irudiotako hauek, besteak beste.

Otsailaren 20an xake topaketa Sutegin: “Fitxak mugitzen jakitea ezinbestekoa izango da”

Xake topaketa antolatu du Sutegi udal liburategiak otsailaren 20rako. 17:30ean hasiko da topaketa liburutegian bertan eta 16 bat gaztetxorentzako lekua egongo da. Xakean jokatzeko dakitenentzat aukera aparta izango da. Breogán Estebez liburategiko laguntzailearekin izan da NOAUA!, ekimen honen nondik norakoak gertuagotik eza-gutzeko.

NOAUA! Liburutegian ekitaldi asko antolatu dituzue azkenaldian: solasaldiak, tailerrak... eta oraingoan xake topaketa proposatu duzue.

Breogán Estebez: Ni neu xake-laria naiz. Duela gutxi arte Gipuzkoa mailan aritu naiz jokatzeko taldean. Hernanikoa naiz eta herriko taldearekin aritu naiz. Bakartxori adierazi nion liburutegia ez dela bakarrik ikasteko espazio bat, baizik eta bizi ere egin behar direla bestelako esperientziak hemen. Xakearen aipamena egin nion, baina topaketa modura antolatuta, ez txapelketa modura. Jendeak gozatu ahal izateko momentua izatea nahi dugu.

Xakean ibiltzen diren herrita-



Breogán Estebez liburategiko laguntzaileak antolatu du xake topaketa. Otsailaren 20an izango da, arratsaldeko 17:30ean hasita.

BREOGÁN ESTEBEZ

“Umeei zuzenduta dago. Hala ere, batzuek esan digute aitonaekin jokatzeko dutela edota gurasoekin. Horiek ere gonbidatuta daude, jakina”

rren erreferentziarik baduzu?

Erik Juez ibili zen herrian haurrei klaseak ematen. Orain, berriki, Santuenean ere xake klaseak ematen aritu dira eta

harrera ona jaso du ekimen horrek. Hori ikusita, bide horri jarraitzea erabaki dugu eta topaketa hau antolatzea.

Herrian zaletasunik badagoela uste al duzu?

Liburutegira etortzen da koadrila bat euren burua frikitzat duena. Horiek xake klaseak hartzen omen dituzte. Gainera, banekien beste liburutegiren batean ere antzeko topaketa edo txapelketaren bat egin zutela. Beraz, pentsatu genuen: zergatik ez hemen? Ona

da jokalarientzat, euren artean harremanak sendotzeko. Atentzioa lantzeko balio du, logikak ere bere aukera du xakean eta balio asko erakusten ditu. Lasai egoten irakasten du xakeak. Bizitzan nola jokatu behar den ikasteko ere aukera bikaina da. Bizitzan egunero aukerak egin behar izaten ditugu, erabaki potoloak batzuetan eta kontu sinpleagoak bestetan. Erabaki horietan batzuetan asmatu egiten da edo aukerarik onena hautatzen dugu, baina beste batzuetan ez. Ahalik eta erabaki hobereak hartzen saiatzen gara, eta hartu dugun erabaki horrek ondorioak ekartzen dizkigu azkenean. Galtzen ere erakusten du xakeak. Zerbaitean jokatzeko dugun bakoitzean irabazi edo galdu egiten dugu, eta galtze hori jokoaren parte ere bada.

Nori zuzenduta dago ekimen hau?

Umeentzat dago zuzenduta, batez ere. Hala ere, batzuek esan digute aitonaekin jokatzeko dutela edota gurasoekin. Horiek ere gonbidatuta daude, jakina. Helduren bat ere etortzen bada ez da inolako arazorik izango.

“Kontua ez da irabazi edo galtzea, gustura aritzea baizik”

NOAUA! Plaza kopurua mugatua izango da.

Breogán Estebez: Gure ideia da 16 bat jokalaririk izatea. Nik lortuko ditut Hernaniko xake elkartetik taulak eta fitxak. Eskaera handia dela ikusten badugu, bigarren egun bat ere proposatuko genuke inor jokatu gabe ez gelditzeko.

Parte hartzeko ezinbesteko

baldintza da gutxi gorabehera jokatzeko jakitea, ezta?

Bai, fitxak mugitzen jakitea ezinbestekoa izango da. Sistema suizarra jarraituko dugu topaketan. Denek ez dute denek aurka jokatu. 5 edo 6 partida jokatu dituzte bakoitzak. Sistema honetan, irabazten dutenek irabazten dutenen aurka jokatzeko dute eta galtzen dutenek galtzen dutenen aurka.

Gisa honetara, maila bereko jendearekin jokatzeko aukera dute jokalariek. Oso txarrak diren motibazio puntu hori gal dezakete, baina beti egongo da egoera berean dagoen jendea. Kontua ez da irabazi edo galdu, baizik eta gustura aritzea.

Aldez aurretik liburutegian izena ematea ezinbestekoa izango da.

Zenbat izango garen alde aurretik jakin beharra daukagu, dena behar bezala antolatzeko. 16 bat lagun edo gehienez ere 20 bat har ditzakegu. Jende gehiagok ematen badu izena, beste egun bat ere jarri beharko dugu, eta hori guztia alde aurretik aurreikusitako beharra daukagu. Sorpresa intelektualen bat ere izango da, agian.

I. ETUMETA LITERATURA LEHIAKETA

OTSAILAREN 1ETIK APIRILAREN 17RA



INFORMAZIOA:

labur.eus/etumeta edo usurbil@aek.eus



“Ikasitakoa bizitza errealeko arazoetan aplikatzen dugu”

Aitor Zubelzu Irazusta (Usurbil, 20 urte) Ingeniaritza Mekanikoa graduko 3. maila ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean.

Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu hobby edo zaletasunik?

Betidanik gustatu izan zait gauza berriak asmatu eta erakitzea, txiki txikitatik LEGOren hasita, orain arte. Beraz, ingeniaritza batean sartzea erabaki nuen. Hasiera batean, diseinu industrial eta mekanikaren artean zalantzan ibili nintzen, eta zenbait pertsonari eta enpresa bateko ingeniari batzuei galdetu ondoren, mekanikan sartzea erabaki nuen. Izan ere, etorkizunari begira ate gehien irekitzen zizkidan gradua zen.

Zergatik aukeratu zenuen Ingeniaritza Mekanikoa gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Jarraian, gradua non egin erabaki behar izan nuen, duda



Aitor Zubelzu Irazusta usurbildarra Mondragon Unibertsitatean ari da ikasten.

AITOR ZUBELDU

“Mondragon Unibertsitateak duen metodologiari esker ikasleok enpresa munduan sartzen goaz pixkanaka”

batzuk tarteko, nahiko garbi izan nuen Arrasatera etorri

nahi nuela; batez ere, unibertsitateak duen ikasteko metodologiari esker ikasleok enpresa munduan sartzen goazelako pixkanaka eta ikasitakoa bizitza errealeko arazoetan aplikatzen dugulako seihileko amaierako proiektuari esker, ikuspuntu teorikoan geratu gabe. Baliteke lehen urteetako proiektuak ez izatea oso sakonak baina ikasmilatan aurrera

egin ahala proiektuak errealitate hurbil daude.

Erabakiak hartzerakoan, adibidez, ikastea eta non, edo beste mota batekoak, onena da ingurukoekin hitz egitea eta aholkua eskatzea ikuspuntu eta bizipen desberdinak jasotzeko; beraz, nire esperientzia norbaiti lagungarria izatea besterik ez dut espero.

“Orain arteko esperientzia bikaina izan da”

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Nire aldetik, unibertsitateko orain arteko esperientzia bikaina izan da, giro ezin hobea eta bertako azpiegiturak ere ugariak dira. Liburutegia, adibidez, campusean bertan dugu eta ikasteko edo talde lanean aritzeko toki bikaina da. Tailerra handia eta aukera

zabalekoa da, baita laborategia ere.

Eredu dualarekin lan-ikaste partekatzeak aukera ere izaten da, ezta?

Bai, bigarren urtetik aurrera lan-ikaste partekatzean (eredu duala) sartzeko aukera izaten dugu, baina nik nahiago izan nuen urte hartan ez egin eta unibertsitateko arlo akademi-

koan gehiago zentratu. Hala ere, aurtan aukera berria aurkeztu zait eta urtarrian Ederrek ikerketa zentroan hasiko naiz lanean. Alde horretatik, unibertsitateak berak eskaintzen dizkizu ikasketak eta lana partekatzeak, Unibertsitateak lankidetzak estua baitu enpresa ugariarekin.

Etorkizunari buruz zeintzuk

dira zure asmoak?

Nire etorkizunari dagokionez, oraindik ez dut oso garbi zer egin. Hurrengo urtean Erasmus programara joan nahi dut; baina ez dut garbi ondoren masterra egin edo ez. Hasiera batean Industria Ingeniaritzako Masterra egiteko asmoa dut, baina oso gogorra da eta ez nago ziur.

Arkaitzerrekako filtrazioak “ingurugiroaren aurkako delitu” gisa ikertzen ari da fiskaltza

GuraSOSeK berri eman duenez, “Donostiako bosgarren Instrukzio Epaitegiak aurretiazko diligentsiaz ireki ditu, Ingurugiroko Fiskaltzak hala eskatuta, ingurugiroaren aurkako balizko delitua dela eta, jatorria erraustegiaren jardunean duten kutsatzaileak daudelako, “pertsonek osasunerako eta ekosistemaren orekarako arriskua dakarten kopuruetan”.

Erraustegiarekin lotuta epaitegietan zabalik dagoen hirugarren diligentsia da honakoa, GuraSOSeK gogorarazi duenez. “Epaitegiak orain ikerketarako bere egiten duen fiskaltzaren idatzian adierazten da badirela Gipuzkoako Ingurumen Zentroaren (GIZ) aldetik zoruaren zein lurrazpiko uren balizko kalitate kontrol gabezia adierazten duten aztarnak, nahiz eta ezagutu arriskua, eta ez zela haien azterketa sakonik egin lehengoratzeko lasterra egitaritze aldera”.

Fiskaltzaren ikerketa, aipatu elkarteak ohar bidez oroitarazi duenez, “59/22 Diligentzien testuinguruan hasi zen, GuraSOSeK egindako salaketaren harira. Fiskaltzak Guardia Zibileko UCOMari (Unidad Central Operativa de Medio Ambiente) agindu zion beha zitzala erreka eta zein erraustegiaren instalazioak, isuriaren jatorria aurkitzeko. UCOMak bete du jada diligentzien atal bat. Uztailaren amaiera aldera behatu zuen erreka eta hartu zituen bere hegiko arrastoak, zeintzuk Instituto Nacional de Toxicología y Ciencias Forenses deritzonaren eskuetan diren orain aztergai. Bestalde, UCOMak iragan urriaren erdi aldera egin zuen erraustegiaren “behaketa tekniko”. Datoren asteetan espero da UCOMak ikerketaren txosten bat



Zubietako arduradunak “eraginezaz” eta “kontrol gabeziak” jokatzen ari direla zioen fiskaltzak. Epaitegiak kontuan hartu ditu fiskalaren hitzok.

GURASOS

“Epaitegi batek erraustegiarekin lotutako zigor diligentsiaz irekitzen dituen hirugarren aldia da”

landu eta dagokion epaitegira igortzea”.

“Kutsadura larria dago azpiko uretan”

GuraSOSeK 2022ko uztailaren erdi aldera salatu zuen erraustegiaren gain-uren zein lurpekoen “kutsadura biziki larria zegoela, bai eta inguruko lurrena, metal astunek, dioxinok, furanoek eta fenolek, besteak beste, eragindakoa”. Foru agintariak zein Jaurlaritzakoak kutsadura horren jakitun ziren, duela bi urtetik. Hala ere GHK behin eta berriz ukatu izan du egoera hori, harik eta 2022ko azaroaren 3an hondakinen partzuergoaren batzarrean aitortu zuen bazela “iragazi lixibiatu gertakari bat, ingurugiroko eraginik gabea”. Orain GuraSOSeK jakin du aipatu Epaitegiak, fiskalaren salaketa idatzia jarraikiz, eskatutako ikerketa abian jarri duela.

Aurretik, uztailaren 14an hain zuzen, “Gipuzkoako Lurralde Fiskaltzaren ezagutzapean jarri zuen Donostiako

erraustegitik etortako material kutsatzaileen isuria ageri zela Arkaitzerrekan, egun bat lehenago apar zuria eta okre koloreko likidoa azaldu baitzen etengabe eta konpuru handian, erraustegiaren lurrazpiko urak jasotzen dituen hondoko drenetik”. Irailean dokumentazio gehiago helarazi zuen epaitegira, “tartean, Idom ingenieritzak 2021eko azaroan landutako txostenak, bai eta SGS kontrol entitateak urte bereko abuztuan, biak GHKren aginduz egindako ikerketen emaitza. Horiekin batera bideratu zituen Usurbilgo Udaltzaingoak errakastoan jasotako arrastoaren azterketaren emaitzak, zeintzuetan material kutsatzaileen presentzia berresten zen, alegia amonioa, kloruroak eta kobrea, nikela eta kromoa bezalako metal astunak. Txosten horiek guztiek agerian uzten dute kutsadura larria dagoela azpiko uretan, metal astunekin, dioxina eta furanoekin zein TPHeekin, 2020ko abendutik, jakina zena Ekondakin, GHK zein Ingurugiroko Sailburuordetzarentzat”.

Desinformazioa

Egoera honen aurrean herritarrek desinformatzea egotzen dio GuraSOSeK Gipuzkoako Foru Aldundiari. Berriki he-

dabide batean, duela bi urtetik erraustegiaren isuriak lege mugaren oso azpikoak direla baieztatu zuten Diputazioko ordezkariak. GuraSOSeK ohartarazi duenez, aldiz, “ez du ezertarako aipatzen Idomek edo SGSk GHKren aginduz egindako txostenei buruz, zeintzuetan esaten baitzen zoruetan eta lurrazpiko uretan azaldutako kopuru kutsatzaileek hain zirela altuak eze gainditu egiten baitzitezuten “eskuhartzerako baloreak”, alegia arrisku jasanezinek zituztenak giza osasunerako zein ekosistemarentzako. Diputazioaren jarrera hau jendartearekiko zein iritzi publikorako ageriko iruzurra izaterarekn batera, ingurugiroari buruzko Aarhuseko [Suedia] akordioak ere desafiitzen ditu. Europako Batasuneko akordio horiek diotenez, botere publikoak behartuta daude erraustegia bezalako proiektuen eragin kutsatzaileei buruz herritargoa informatzera. Berez, ez dute bete behar hori baldintzatzen arrisku kutsatzaileok diren ala ez frogatzera, zalantzaezinezkotzat jotzen baitute halako proiektuetan beti dagoela kutsadura”.

“Beste zabortegi bat”

Herritar batek bidali digu aldameneko argazkia. Txikierridiko Zaldierreka ondoan eginga da, “Artxubietatik Zelaiundigañara doan bidean”.



Hondakinak pilatuta ageri dira herritar batek bidalitako irudian.

“Zerbait berria nahi genuen, lehengo pintxopotea itzuli gabe, eta horrela sortu da Kulturpotea”

Kulturpoteak zikloa aste honetan hasiko da Artzabal jatetxean. Otsailean sartzearekin bat hiru hilabetez luzatuko den proposamena egin dute jatetxean pintxopotearen nostalgia dutenentzat eta bakarriketa zein musikaz gozatzeko prest daudenentzat. Ostegunero, 19:00etan hasita, musikaz eta barrealdi ederrez gozatzeko aukera izango da. Igor Gorriti arduradunarekin izan da NOAUA! Kulturpotearen nondik-norakoak biltzeko.

NOAUA! Kulturpote ekimen berriarekin hasiko zarete ostegunetan. Zertan datza?

Igor Gorriti: Lehen pintxopotea geneukan pandemia iritsi arte. Pandemiak pintxopotearekin amaitu zuen eta orain berriz ere zerbaitetan hasi nahi genuen. Zerbait berria aurkitu nahi genuen lehengo pintxopotea itzuli gabe eta horrela sortu da Kulturpotea. Denbora bat baneraman gaiari bueltaka eta argi neukan kulturari heldu behar geniola. Hala ere, hilabete guztiak ez dira berdinak, eta hilabete askotan Usurbil ekitaldiz gainezka egoten da. Azaroan topera egon zen Usurbil agenda kontuetan, eta be-



“Ostegun honetan hasi eta 12 astez gonbidatuak izango ditugu Artzabalen. Ostegunero, 19:00etatik aurrera”.

IGOR GORRITI

“Otsaila, martxoa eta apirileko ostegunetan kulturaz gozatzeko aukera eskainiko dugu Artzabalen”

raz, udaberri alderago egiteko zerbait behar genuela iruditu

zitzaidan.

Orain hasi eta udaberrira arte luzatuko da, beraz.

Ostegun honetan, bai. 12 astez gonbidatuak izango ditugu ostegunetan 19:00etatik aurrera. Aste Santuan jai egingo dugu, baina otsaila, martxoa eta apirileko beste ostegun guztietan aukera eskainiko dugu kultu-

raz gozatzeko.

Kulturaz ari gara, baina nolako ekitaldiak izango dira?

Bakarlarriak izango ditugu gure artean, musikariak bakarka zein taldean. Musikariak bertsioak edo coverrak egiten dituztenak ekarriko ditugu, ez abesti propioak dituztenak. Pintxopote musikatua izango da nolabait.

“Pintxopotea oso ondo uztartzen da musikarekin”

NOAUA! Udan ere jarraipen bat emango diozue Kulturpoteari?

Igor Gorriti: Ekimen berarekin jarraitzea dugu buruan, baina musikariak eta bakarriketa proposatu beharrean, DJak jartzea da gure asmoa. Oraingoz hiru hilabeteko formatu hau egingo dugu nola funtzionatzen duen ikusteko.

Guk Artzabalen kontzertuak egin izan ditugu, baina 2012-2013an izan ziren haiek. Oso egun seinalatueta egin genituen, eta beraz, ezin dugu esperientzia harekin konparatu. Oso modu esperimentalean hasiko gara. Pintxopotea musikarekin oso ondo uztartzen dela iruditzen zaigu eta proba egingo dugu.

Kanpoko espazioa erabiliko duzue edo taberna barruan egingo dituzue Kulturpoteko ekitaldiak?

Barruan egingo ditugu saioak. Mahaiak kenduko ditugu komun ingurukoak izan ezik, eta horrela lortutako espazioa aprobetxatuko dugu. Tente egongo da jendea zerbait hartu eta saioa ikusten duen bi-

tartean.

Udaberri alderago eta eguraldi onarekin, kanpoko portxera aterako gara. Aurrekusten ditugun taldeetako batzuek badakigu jende dezente mugiaraziko dutela, baina beste batzuek ez dakigu jende asko erakarriko duten ala ez. Beraz, lekua beharko dute.

“Bertsioak egiten dituzten musikariak ekarriko ditugu Artzabalera”

NOAUA! Herritarrek gonbidatu dituzue ekimenean parte hartzera?

Igor Gorriti: Ez bereziki, baina herriko talderen bat eta bakarrizketa egingo duen norbait ere izango da. Oraindik agenda erabat itxi gabe daukagu, deika ari gara. Zenbait pertsonarekin kontaktuan jarri gara, baina kontu asko zehazteke ditugu.

Herritarrengana ez dugu horrenbeste jo, talde gehienek abesti propioak kantatzen dituztelako, eta gurea ideia beste bat da. Coverrak joko dituzten talde txikiak ekarri nahi ditugu eta formatu horretan lan egiten duten talde gutxi daude herrian. Hala ere, herritarren batek ikusiko balu formatu honetan kontzerturen bat ematea gustatuko litzaiokeela kontakta dezala gurekin Artzabalera etorrita edo sare sozialen bitartez inolako arazorik gabe. Talde handiago bat itxita daukagu, baina apirilerako utzi dugu egun onarekin portxean egiteko, bestela ez dira taberna barruan sartzen.

Luzera begira, ekimenak funtzionatuko balu jarraituko zenukete hurrengo hilabeteetan ere?



Iker Piris blues gitarrajolea arituko da ostegun honetan Artzabalek antolatutako Kulturpotean. “Udaberri aldera eta eguraldi onarekin, kanpoko portxera aterako gara”. Argazkia: ikerpiris.com

IGOR GORRITI

“Artzabalen hiru urte eta erdi geratzen zaizkigu aurretik, eta bitarte horretan probetxua atera nahi diogu ahal bezainbeste”

Guri Artzabalen hiru urte eta erdi geratzen zaizkigu, eta bitarte horretan probetxua atera nahi diogu ahal bezainbeste.

Kontua da, herrian hilabete batzuetan agendan ekimen asko egoten dira eta ez du zentzurik horren gainean gu ere gauza gehiago antolatzen jartzeak. Udazkenean, adibidez, ekintza asko egoten dira, beraz, gure proposamenerako ez litzateke momenturik onena izango. Hasiera batean, horixe zen gure asmoa, udazkenean martxan jartzea ekimen hau, baina agenda ikusita ez zuela zentzurik ondorioztatu ge-

nuen. Orain lasaiago daudenez kontuak momentu hobea dela iruditu zaigu.

Musikariei helduta, denetari-ko estiloez gozatzeko aukera izango da?

Bai. Batzuek jazz musikara gehiago joko dute, askok rock edo pop estiloetara gehiago. Oraindik kontzertu asko itxi gabe daukagu eta zaila da behar bezala aurreikustea zer nolako kontzertuak izango diren.

“12-14 pintxo mota jarriko ditugu aukeran”

NOAUA! Pandemia aurretik herrian pintxopoteak indar handia zuen eta ziur aski jendea horrelako zerbaiten zain ere egongo da.

Igor Gorriti: Bai, pintxopoteak jende asko mugitzen zuen eta guk pandemia aurretik lan asko egin genuen pintxopotean.

Oraingoan, ordea, oso for-

matu ikusia zela sentitzen genuen eta freskotetasun gehiago zuen zerbait behar genuela. Pintxopotea bai, baina zerbait gehiago ere eskaini behar genuela iruditu zitzaigun. Gehiago jolastu nahi genuen eta herritarrei poztasun pixka bat eman.

Pintxoei dagokionez, aukera

zabala jarriko duzue pintxopote klasikoan egin ohi zen bezala?

12-14 pintxo mota jarriko ditugu nahi duenak pintxoak jateko aukera izan dezan, zerbait hartu eta kontzertuez gozatzeko. Pintxopote musikatu bat egitea da ideia, pintxopoteak zuen hori mantenduta eta musika gehituta. 19:00etan

kontzertu edo bakarrizketak hasiko dira eta ordubetez edo orduterdez arituko dira. Bakarrizketak laburragoak izango dira printzipioz, ordubetez bakarrik hitz egitea zailago izaten delako, baina kontzertuek ordu eta erdirako ere eman dezakete. Beraz, herritar oro gonbidatuta dago gurera.

Irudi berria plazaratu du Sarek

Etxera aldarri eta irudi berria eman zuen eza-gutzera aipatu mugimenduak milaka lagun batu zituen urtarrilaren 7ko Bilboko manifestazioaren bezperatan. Hilabete horretako azken ostiralean Usurbilgo mobilizazioan aurkeztu zuten. “Gaur eskuetan dugun ikur berria bazter orotara hel dadin nahi dugu, denok barnera dezagula aro berri honetarako banderola delako, denok batera lanean aritzeko etxerako bidea oztopatzen duten salbuespen-neurriei amaiera emanik”, adierazi zuten Usurbilgo Sareren ordezkariak hilaren 27ko elkarretaratzearen amaieran.

Bi gezi ageri dira oihal hauetan. “#Etxerabideagertu geziek markatzen duten bidea da, ibilbide juridikoa egiten aspaldi hasi ziren euskal presoek eskubideen bidea, legezotasun arrunta aplikatu arte”. Salbuespen legedia eten arte alegia. “Ez dira onurak”, Sareren esanetan. “Ez gara zigorgabetasunaz ari. Presoen eskubideak defendatzen ditugu. Lautik ia hiruk bete dute hirugarren gradura proposatzeko legediak eskatzen duen espetxealdia. 17 presoek gaixo-



Bi gezi ageri dira oihal hauetan. “#Etxerabideagertu geziek markatzen duten bidea da”, Sarek aditzera eman duenez.

SARE

“Presoen eskubideak defendatzen ditugu. Lautik ia hiruk bete dute hirugarren gradura proposatzeko legediak eskatzen duen espetxealdia”

tasun larri edo sendaezinak pairatzen dituzte. 70 presoek 20 urte baino gehiago daramatzate espetxean, horietako batzuk 30 urte baino gehiago”. Herri mobilizazioa ezinbestekoa izaten segiko duela gogorarazi zuten, Bilboko manifestazioak milaka lagunek adierazi moduan.

“Manifestazioak babesia eman dio urte luzez aldarrikatzen ari garenari, alegia, salbuespenen neurrien amaiera; eta indarkeriaren biktima guztiekiko errespetua eta tratamendu bera, biktima guztientzat”.

Otsailera begira, Sareren bi deialdi:

Otsailak 4, larunbata

■ 12:30 “Urrunketarik ez, Gregorio etxera” aldarripean manifestazioa Orioko plazatik.

Otsailak 24, ostirala

■ 20:00 Elkarretaratzea Mikel Laboa plazan.

■ Deitzailea: Sare.

Etxealdiako irisgarritasun planaren aurkezpena

Etxealdia irisgarriago eta atseginagoa eraikitze bidea lantzen ari da Usurbilgo Udala bertako bizilagunekin azken urtebetean. Irisgarritasun plana aurkeztuko du, ostegunean, otsailaren 2an, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean.

Tren geltoki berria eraikitzen hasteko prestatzen

Aldez aurreko lanak egiten

ari dira tren geltokiaren bueltan. Berria eraiki aurretik hain zuzen, eremu horretako hainbat hornidura sare daudenez, “Nortegas enpresa gas hodia desbideratzeko lanak egiten ari da”, Usurbilgo Udalak ohararazi duenez. Udalak iragarri duenez, laster hasiko dituzte geltoki berriko lanak, baita bertara jaisteko Etxealdiako San Esteban kaleko urbaniza-

zio lanak ere. Biak ala biak irisgarri bilakatuko dituzte. Aipatu kaleko proiektua Udalarena da, Eusko Trenbide Sarearekin adostua; oinezkoak lehenetsiko ditu. Geltokiaren proiektua ETS-k gauzatuko du. Zubi berriak egun bezala N-634 errepi-dea eta trenbidea zeharkatuko ditu. Geltokira igo nahiz jaisteko eskilarak eta igogailuak eraikiko dituzte.

Dirulaguntza deialdi berrien aurkezpena

Usurbilgo Udalak ohararazi duenez, otsailean zabalduko du 2023ko dirulaguntza deialdietara eskabideak aurkezteko epea. Aldez aurretik, haietako bi laguntza lerroei buruzko xehetasunak asteazken honetan aurkeztuko ditu Potxoenean:

Otsailak 1, asteazkena

Dirulaguntza deialdi berrien aurkezpena:

■ 18:00 Sormen dirulaguntzen aurkezpena.

■ 18:30 Kulturako dirulaguntzen aurkezpena.

Deitzailea: Usurbilgo Udala.

Egutegi Dinamikoaren aurkezpena

Koordinazio nahiz komunikazio gabeziak hobetu, indarguneei eutsi, kulturgileen beharrak eta kulturgileak elkarren artean ezagutu edota alor honetan lankidetzaz sustatzeko bilgune bat eraikitzeari ekin zioten 2021eko udazkenean kulturgintzako norbanako nahiz eragileek. Barne lanketan aritu ziren 2022ko lehen seihilekoan. Hilabeteotan joraturikoa plazaratzeko Kultur Azoka antolatu zuten iazko ekainean. Urte amaieran, bestalde, “650 Usurbil Bizi” oharra herri sorkuntzaz hornitu zuten. Beste egitasmo bat iragarri dute orain; kulturgintzan dauden gabeziei aurre egiteko, besteak beste, eragileen arteko koordinazioa hobetzeko “Kulturguneak Usurbilgo kultur antolatzaileentzat lagungarria izan daitekeen tresna aurkeztuko du: Egutegi Dinamikoa”. Otsailaren 8an 18:00etan Potxoenean. Deitzaileei bertara joateko gonbita egin diete kultur eragile orori, bereziki antolatzaileei.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trasteleku, balkoia, terraza. 688 710 916.

Alokairuan

Usurbilen 2 edo 3 logelako etxea alokatu nahiko genukeen aita eta 13 urteko semea gara. 683 548 749.

Logela bila nabil Usurbil, Aginaga aldean. 643 830 772 (Luis).

Usurbilen logela bat alokatzen dugu neska edo emakume barentzako. 618032966

MOTORRA**Salmenta, garajeak**

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 70 metro koadro ditu eta sarre-rako atea handia dauka materialak erraz sartu eta ateratzeko. 652765583

Bigarren eskuko Ford Focus Berlina Trend bost ateko ibilgailua salgai. Berria, zaindua, garajejan egondakoa. 56.000 km. 125 zaldi. Gasolina. Aurrrerako bi gurpilak lau urtarotarako baliagarriak. 11.900 euro. 629 553 497 (Beatriz).

Gutxi erabilitako lau gurpil salgai (195/65R15 91H). 200 euro. 671 54 75 67.

Aginagan, Elutx kalean 30 m² garaje itxi bat salgai. 629 460 966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusia, Bizkarren. 687 406 209.

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Laukote okindegian langile bat behar dugu lanaldi erdiz aritzeko. 634 401 171.

Lan egin nahi duzu zerbitzari bezala 40 orduko kontratu batenkin? Animatu eta deitu hona:

680483164

Batxilergoko lehen mailako ikasle bati euskaraz matematikako klase partikularrak emango dizkion pertsona baten bila gabilza. 608201745

Klase partikularrak emateko prest dauden zerrrenda osatzen ari da Udarregi Ikastola. 943 36 12 16.

Zerbitzaria behar dugu aste-buruetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarrondon. 626 686 036

Guria Tabernan sukaldari laguntzaile behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Zerbitzariak behar dira Aginaga sagardotegian, urte osoan zehar astebukaeratan lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega ja-

tetxean. 666 671 444

Lan eskaerak

Orduka edo jornada erdiz etxeko garbiketarako egiten ditudan 50 urteko emakume bat naiz. Interesatua bazaude deitu 643 576 129.

Pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiteko lan bila dabilen neska euskalduna bat naiz. 626 604 527

Haurrak zaintzeko eta ingeleseko klaseak emateko prest da goen neska euskaldun gaztea. 697 46 55 55 (Olatz)

Kurtsoan zehar arratsalde zaurrak zaintzeko prest eta esperientziarekin. 695 184 179 (Ane)

Kurtsoan zehar klase partikularrak emateko edota haurrak zaintzeko lan bila nabil. Magisteritzan graduatua eta esperientziaduna. 679 219 805 (Iratzi)

Ikasturtean zehar umeak zaintzeko edota Lehen Hezkuntzako ikasleei klase partikularrak emateko lan bila nabil. 688645491 (Nahia)

Ostalaritzan edo pintura lanean zein igeltseritzan lan bila nabil. Urteetako esperientzia lehen mailako ofizial bezala eta ostalaritza munduan ere bai. Negozio propioa ere izan dut ostalaritzan. 657 683 762

Umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil, orduka zein egun osoz. 624 509 470

BESTELAKOAK

Erloju digital bat aurkitu dugu Agerialdeko patiorako sarreran, Arratzain bideko espaloian. Erloju beltza da eta pausoak neurtzen dituen horietakoa da. Galdu duenak Udaltzaingoan galdetu, bertan utzi dugu.

Abenduaren 28an Gabonetako Haur Paretetik bueltan jantzita guenen zapatiletako bat (Adidas markakoa, beltza) beste norbaitena dela jabetu gara. Gure zapatiletako bat beste batek jantzita eraman zuen. Inor honetaz jabetu bada deitu 687 779 669 telefono zenbakira.

**Zorionak June!**

Otsailaren 1ean 11 urte egingo dituzu. Zoriontsu ospatu zure urtebetetzea. Besarkada eta muxu handi bat!

**Zorionak Amatxi!**

Otsailaren 5ean, muxu erraldoi bat gure etxeko erreginari familia osoaren partez!! Maite zaitugu!!

Eskubaloi partidak**Oiardo kiroldegian****Otsailak 4, larunbata**

■ Infantil mutilak:
10:00etan Usurbil KE-ren partida (aurkaria zehaztu gabe).

■ Infantil neskek:
11:00etan Usurbil KE-ren partida (aurkaria zehaztu gabe).

■ Jubenil mutilak:
17:45ean Usurbil KE - Pulpo eskubaloia.

■ Kadete neskek
Ordua zehaztu gabe
Usurbil KE kadete neskek - Ereintza eskubaloia.

Heriotzak

Jose Mari Zubizarreta Lizarralde



Urtarrilaren 18an hil zen, 82 urterekin

Heriotzak

Paula Zabalo Gascue



Urtarrilaren 20an hil zen, 92 urterekin

Heriotzak

Jose Luis Iturralde Iribar



Urtarrilaren 25ean hil zen, 78 urterekin

Goardiako farmaziak

Osteguna 26 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 27 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Larunbata 28 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Igandea 29 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Astlehena 30 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteartea 31 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Asteazkena 01 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Osteguna 02 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Ostirala 03 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Larunbata 04 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 05 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian eta aplikazioan dituzue ikusgai.

Agenda otsaila

03 ostirala

■ **Usurbil 1936 elkartearen web orrialdearen aurkezpena.** 18:30ean Sutegin. Antolatzailea: Usurbil 1936 elkarte.

04 larunbata

- **Ate irekien eguna Udarregi ikastolan.** 11:00etan Eraikin gorrian.
- **Martxoaren 8ko ekimenak antolatzeko bilera.** 11:30ean Potxoenean.
- **Santa Ageda bezpera.** 18:00etan Mikel La-boa plazan. Antolatzailea: Kantu Taldea.

05 igandea

■ **Haurrentzako zinea: "Ama Mu etxera itzuli da".** 17:00etan Sutegin. Sarrerak: aurrez 3 eurotan usurbilkultura.eus plataforman. Antolatzaileak: Usurbilgo Udala, Ziortza Gazte Elkarte.

Igandean haurrentzako zinea Sutegin: "Ama Mu etxera itzuli da"

Ziortza Gazte Elkartek eta Udalak euskarazko film baten proiektzioa iragarri dute. 'Ama Mu etxera itzuli da' pelikula arratsaldeko 17:00etan hasiko da eta sarrerak dagoeneko eskaragarri daude usurbilkultura.eus plataforman.

Otsailak 5 igandea

- 17:00etan, Sutegin.
- **Sinopsia:** "Zikoina bidaiaria bere baserrian agertzen den egunean, Ama Muk bere buruari galdetzen dio zer esan nahi duen benetan 'etxe' hitzak. Bizi den beldia eta landetxea bere etxeak al dira? Eta mundu handi honetako beste lekuren batean bizitzeko leku hoberik balego? Beleari ordea, kosta egiten zaio lagunari



Animaziozko filma ikusteko sarrera alde zuretik eskura daiteke.

erakustea bizitzeko leku aproposena ez duela zertan kanpoan topatuko".

- **Sarrerak:** aurrez 3 eurotan usurbilkultura.eus plataforman.
 - **Iraupena:** 63 minutu.
- Antolatzaileak: Udala, Ziortza G. E.

Usurbil1936.eus web orrialdearen aurkezpena

1936ko gerrari buruz egiten ari diren ikerketan zehar aurkitu dituzten pertsonen erreferentziak, dokumentuak, testigantzak eta datu ugari usurbil1936.eus web orrialdean jaso dituzte. Web orrialdea ostiral honetan aurkeztuko dute, 18:30etik aurrera Sutegin. Antolatzailea: Usurbil 1936 elkarte.

Martxoaren 8ko ekimenak antolatzeko hasteko garaia da

Martxoaren 8ko ekimenak antolatzeko hastera doa Kafe Tertulia, Usurbilgo neska* gazteen talde feminista. Lehen bilera larunbat honetan egingo dute; eguerdiko 11:30ean Potxoenean. 2019. urtean bideratu zen belaunaldiarteko antolaketa eredu berreskuratu nahi dutela nabarmendu du talde feministak.

Datozenak



'Filmak', Inauterietan mozorrotzeko gaia

'Ikus-entzunezkoak, filmak' izan da datorren Inauteri Festarako hautaturiko gaia. Ekin beraz, prestaketa lanei. Zuen ekarpenetatik erabaki du NOAUA! Kultur Elkartek otsailaren 18ko jaialdirako mozorrotzeko aitzakia. Larunbat horretan egun osoko festa giroak herriko kaleak koloreztatuko ditu.

Xake topaketa udal liburutegian

Usurbilgo Sutegi udal liburutegiak xake topaketa bat antolatu du otsailaren 20rako (Inauteri astelehenerako). Plaza kopurua mugatua izangoenez, alde zuretik eman behar da izena liburutegian bertan.

Xake topaketa udal liburutegian bertan egingo da eta arratsaldeko 17:30ean hasiko da.

Urtaiz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392
urtaiz@urtaiz.com USURBIL

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 19/22

20170
USURBIL

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA

8:30-13:30

EGIN ZURE ESKAERAK WHASTAPP-ETIKI!
650 31 31 91 USURBIL

INAUTERIAK 2023

OTSAILAK 17-18 USURBIL

Gaia: FILMAK

OSTIRALA

ORBELDI eta ZUMARTEekin,

Adunako Axeri dantza

Iñauteriak dantzan

19:00 kalejira

Kiroldegitik abiatuta

20:00 emanaldia

frontoian.

LARUNBATA

12:30 ORBELDIREKIN

DANTZA!!!! frontoian

12:30 - 14:00 JOALDUNAK

kalean zehar

18:00 BURRUNBAZALE

txarangarekin kalejira.

23:00 Fan&GO erromeri

taldearen emanaldia frontoian

URDAIRA

Sagardotegia



AGINAGA
943 37 26 91

astelehenak itxita



OTSUA-ENEA

SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, **HERNANI**



LARRE-GAIN

DOLARE SAGARDOTEGIA



Urtarrilaren 19tik maiatzaren 7ra
TXOTX GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa larunbatetan
Igande gaua eta astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**
Tel: **943 55 58 46** Mugik: **616 287 867**

www.iruinsagardotegia.com



ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehen eta astearte izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ☎ **943 55 69 81**



Sagardotegia

www.sidrassaizar.com



943 37 39 95

SAGARDOTEGIA

aginaga

URTE OSOAN
ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA
astelehenetan itxita



Tino-fax: 943 36 67 10
Aginaga avzea, 20170 USURBIL
info@aginagasagardotegia.com
www.aginagasagardotegia.com

Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!

ORDUTEGIA:

Asteazken eta ostegunak: 20:00-01:00

Ostirala: 13:30-18:00 / 20:00-01:00

Larunbata: 13:00-18:00 / 20:30-01:00

Igandea: 13:30-18:00

%100 bertako saarra

Tel: **943 365 031**

Santuenea

